

LEXIKOAREN BEHATOKIA 2015

Euskaltzaindia 1980. urtearen hamarkadan corpusak lantzen hasi zen, haietan oinarritzeko hizkuntzalaritza arloko ikerketa eta araugintza. Horren ondorio izan ziren Hiztegi Batuaren 1. argitaraldia, 2000an eta Orotariko Euskal Hiztegiaren 1. argitaraldia, paperean, 2005ean osatu zena.

Hiztegi Batuko lantaldeak, 2007an, neologiaren eta hiztegiaren erabilera aztertzeko, Lexikoaren Behatokia sortzea proposatu zion Euskaltzaindiari. Ordutik hona, Euskaltzaindia, urtean-urtean, garatuz joan da egitasmo hori eta erabiltzen, Hiztegi Batua aberasteko eta, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren bidez, Akademiaren hiztegi ofiziala lantzeko. 2016. urtean hiztegi horrek 40.000 sarreratik gora izango ditu, beren kategoria gramatikal, euskalki-, espezialitate- eta erabilera-markekin, adieren definizio eta benetako testuen adibideekin eta azpisarrerekin. Horren oinarrian Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusa, XX. mendeko testuena eta Lexikoaren Behatokiarena daude.

Lexikoaren Behatokia tamainaz handituz doa: 2008. urtearen bukaeran zituen 4 milioi testu-hitzetatik 2015. urtearen bukaeran izango dituen 51,8 milioi testu-hitzetara. Edukiak hainbat komunikabide eta argitaletxetatik etortzen dira, Euskaltzaindiarekin sinatzen dituzten hitzarmenen bidez.

Lexikoaren Behatokiak 2000. urtetik aurrera argitaraturiko testuak biltzen ditu. Oraingoz hiztegi gintzan erabiltzen den arren, prestatu dago hizkuntzaren beste arlo batzuk ikertzeko euskarria izango den Euskararen Erreferentzia Corpusa izateko, batez ere, testuen katalogazio zehatzaren bidez, une oro euskararen aldaera bakoitzak gizartean duen garrantziaren arabera hornitzen joan daitekeelako.

Nazioarteko estandarren arabera dago etiketatua eta linguistikoki anotatua, eta Internet bidez kontsulta dezake edonork helbide honetan: <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus>

Corpusa prozesatzeko teknologiari dagokionez, Euskaltzaindiarekin lankidetzan dihardute UZEI eta Elhuyar erakundeek eta EHUko Informatika Fakultateko IXA taldeak.

Andoni Sagarna,
Lexikoaren Behatokia egitasmoaren zuzendaria